

NORA
Jare Sanzo Orts
Idiazabal

Eta bat-batean, ospitale-usaina. Ospitale-usaina eta ahopeka hitz egiten duten ahots identifikaezi-nak. Gela biluzi eta hotza argiztatu duen argi zuriak itsutu egin nau, aurreneko aldiz begiak ireki dituen jaioberriari iristen zaion lehen argi-izpia bailitzan, epela, baina, aldi berean, milaka lizto-rren burrunba sortzen duena. Ezin dut gehiago. Ba al dago amore ematerik? Ingurura begiratzer a usartu naiz. Lagunak ikusi ditut.

Irribarretsu dauzkat begira, baina urruneko anbulantziaren zarata bortitzak ez dit ondo ikusten uzten. Hurbiltzen ari da eta besoaz gelditzeko sei-naleak egiten ahalegindu naiz. Ezinezkoa da, ezin mugi bainaiteke. Harritzarra jausi zait hanka gaine-ra eta lagunak ez naute lagundu. Non ote daude orain? Betazalek ehun tonako pisua irabazi dute eta ez naiz begiak irekita mantentzeko gauza. Besotik irmo heldu didatela nabari dut, baina ez dit axola, ez dio ezerk ere axola. Ahotsak bata bes-tearekin nahasten hasiak dira eta irudi lausotuak besterik ez dut gogoan. Ez naiz gai hauei errepara-

tzeko gai, ez dut indarrik, bizitzaren funtsak indarra galdu du niretzat. Ba al dago amore ematerik?

Arratseko 14:58ak. Bi minuturen buruan libre izango ginen. Ez nuen bizitza osoan askatasuna hain gertu sentitu. Espero genuen unea heldu zen jada eta matematikako ikasgela txiki horretako giro pisutsuan nabari zen uda-usaina. Elkarri begiratu genion, gure benetako bizitza orduantxe hastear zegoen. Irrika aurpegietan eta zoriona zainetan. Hainbestetan amestutako unea. Azterketa horien guztien atzean izandako sufrimendu eta lorik egin gabeko hamaika gau luze. Ez zion ezerk ere axola une preziatu horretan, ez zion ezerk ere axola.

Ikasturte berriari ekin genion lehen egunetik hasi ginen bidaia hura antolatzen. Gure azken bidaia elkarrekin, bakoitzak bere bidea hartu aurretik. Iskanbila franko eta makina bat haserrealdi izan ziren tarteko, baina bidaiak dena merezi zuen. Egundoko lana egin genuen diru-kopuru hura lortzeko, zorrak zirela eta ez zirela... Baina bidaia goitik behera prest zegoela ikusi genuen egun hartan bereganatu gintuen hotzikarak, mila hitzek baino gehiago sentiarazi zigun. Inoizkorik onena zetorkigun orduko uda hura. Alaitasuna dastatuko genuen behingoz. Bizitzako etapa berri bat zain geneukan, inoiz ahaztuko ez genuen etapa bat.

Oraindik ere odolaren zapore gazia dut ahoan. Ez dut ulertzen zergatik ez ditudan lagunak hemen, alboan, betidanik elkarren ondoan egon garen moduan. Bakarrik sentitzen naiz gela hotz honetan. Ohearen ezker aldean, gutun-azal ireki

bat ikusi dut mahai txiki batean, ezkutuan egongo balitz bezala, inork ikus ez dezan. Argazki bat dago alboan, beheko aldean hizki larriz idatzitako esaldi bat du. Ez naiz irakurtzeko gai. Hizkiek barre egi-ten didatela dirudi eta itzalak besterik ez dut ikus-ten. Hitzzen esanahia ahaztu egin zaidala ematen du, baina argazkiko neska irribarretsu ageri dela ikusi dut. Nire jaka berdina jantzita dauka. A zer nolako kasualitatea! Denda berberean erosiko genuen, nonbait.

Neska gaztea dela antzeman diot eta bizitza ezin hobe duela esango nuke. Horrek bai zortea, horrek! Nireak ez du zentzurik une honetan, ez dakit ez nola, ez zergatik iritsi naizen nagoen tokira, ospitale zuri honetara. Ate zamatsuaren bestaldetik, «Nora! Nora esnatu egin da!», oihukatu dutela entzun dut. Nor izango ote da Nora hori? Eta zergatik hainbesteko iskanbila esnatzeagatik? Pentsatze hutsarekin buruko mina areagotu zait. Buruak eztanda egin behar dit, seguru. Pentsamendua inon ez eta pentsamendua leku guztietan. Nork ulertuko ote nau ni, neure burua ulertzeko gai ez banaiz ni? Odola borborka. Ezin diet nire pentsamenduei jaramon egin, taupaden soinua nagusitu baita gela bakarti honetan. Norbaitek amata dezala soinu itogarri hau, arren!

Iraganeko argazki ugari gogora etortzen hasi zait, bata bestearen atzetik, arrapaladan eta inongo zentzuari jarraitu barik. Odola ikusi dut, baita albo-ko herriko jaiak ere. Baina ez dago loturarik horien artean. Edo bai? Kaka zaharra! Zer dakit nik?!

Alferrikakoa naiz mundu honetan. Alferrikakoa, haurrek mila biderrez mastekatu eta azkenerako lurrera bota ohi duten marrubizko txikleaz bezala. Alferrikakoa, bai, gure amonak esango lukeen moduan, «gaur egungo telebista zatar eta finolariz betetako horien guztien antzera».

Hurrengo zapatuan alboko herriko festak ziren. Bi aste falta, gure bizitzako bidaiarik onenari ekiteko, hamalau egun soilik. Larunbat berezia izango zen hura, izan ere, neba zaharrena etxera itzuliko zen, Suedian bizpahiru urtean ikasten jardun eta gero. Hala ere, azken minutuko hegaldi atzerape-nak hurrengo egunera arte itxarotera behartu ninduen. Baina, hainbeste hilabete igaro ostean, hogeita lau ordu gehiago itxaroteak ez ninduen izutzen, ez zidan axola. Ohituta nengoen jada gau-zen esperoan egoten.

Aritzek autoan eramango gintuen parrandara. Dena prest geneukan. Betiko jatetxean kuadrillako afaria egin eta kotxeko hots zaratsuek gauari hasiera emango baliote bezala, bidaiak laburrari heldu genion kantu eta barre artean. Gau hartan ez genuen alkoholik edan. Gure kuadrilla ez zen mozkortzen den horietakoa. Jai-giroko gau luzea geneukan aurretik, benetan merezitako gaua, bai horixe. Ilargi bete-betea zegoen. Gauaren erregina, desgraziaren testigu...

Poliki-poliki, une txikiak gogoratzen hasi naiz. Hara! Gaur etorriko da Mikel etxera! Elkar ikusi genuen azkeneko aldia dut gogoan. Aireportuan geunden, ni bera baino urduriago. Azken besarka-

da ganoraz emateko ere astirik ez genuen izan, bozgorailuko emakumeak Suediarako hegazkina hamar minutu barru aireratuko zela gogorarazi baitzigun. Hegazkineratze-ateaz bestaldetik agurtu nuen oihuka, negar-zotinka. Hark itsasoa diruditen harako begi haiekin erantzun zidan.

Nahi gabe edo nahita, ohe ondoko argazkian pausatu zait begirada beste behin. «Nora». Horixe da esalditik irakurtzeko gai naizen gauza bakarra. Kontxo! Orain dela ordubete esnatu den neskaren izen berdina du argazkiko gazteak. Gurasoak bila izango ditu, segur aski. Gela honetan ere sartu dira, izena behin eta berriz ahots mehe ahulez errepikatuz, negar-malko gazi potoloak masailetik behera. Ni geldi geratu naiz, lo-itxurak eginez. Une honetan ez dut gogorik inorekin ere hitz egiteko. Buruko korapilo hau askatzeko besterik ez dut eskatzen, eta lagunak ondoan izateko, haiek ospitale honetatik aterako bainaute. Horrelako pentsamenduak burura etorri zaizkidanean bakarrik nagoela ikusi dut, bakarrik gela hotz honen erdian. Gela honetatik at beste errealitate bat dago, baina ez nago ziur han ere bizi nahiko nukeen. Beldur naiz.

Semaforoa gorritz jantzi zitzaigun. Odola bezalako, gorria. Aritzek balazta egin zuen poliki. Ez geneukan presarik eta mantso-mantso gindoazen, autoko leihatila guztiak irekita, aire purua arnasten, gaueko hego-haize hark ileak harrotzen zizkigularik. Baina ez zigun axola. Ez zion ezerk ere axola jada, gau itzela baikenuen gure zain.

Lagunei begiratu nien, aurpegia gorritz koloretatuta, semaforoaren erruz. Izutu egin nintzen, autoko atal bakoitza odolez ziprztindurik zegoela baitzirudien. Ez nekien irudi hura berriz errepikatuko zela aurki. Ez nekien irudi hark bizitza osoan zehar barrenak jango zizkidala. Ez nekien zenbaitetaraino maite nuen bizitza. Orain badakit, eta ez da itzuliko.

Berdea. Azeleragailua sakatu eta aurrera jarraitu genuen geure bidean, lasai asko. Kilometro gutxi batzuk falta genituen helmugarako, parrandarako, zorientasunerako. Trikiti-soinua ere entzun neza-keen urrunean, jendez lepo zegoen kontzertu batetik irtena, geuri deika. Gogotsu geunden, bizi-pozez gainezka. Ezin gintuen inork, ez ezerk geldiarazi. Errepidean geldigaitzak ginen. Eta berriz ere, une hartan, ez zigun ezerk ere axola. Baina axola izango zidan, bai, oso axola izan ere, gertatzeaz zegoenak.

Bat-batean, kanpotik datorren haize hotza nabari dut. Oilo-ipurdia jarri zait gorputzean. Gelako atea ireki da. Bihotza azkartu zait, laguneren esperan. Hiru aurpegi ezezagun agertu zaizkit parean. Baina ez, ez dira lagunak. Hitz soil batzuk elkartrukatutuzte. Ezin izan ditut entzun, oso baxu hitz egin baitute, ni ez ohartzeko, seguruenik. Oso urrun sentitzen naiz haiengandik, eta ez, ez da fisikoki.

Hiruretako bat gerturatzten hasi zait, poliki-poliki, ni ez izutzearren. Ile kizkurra du, eta ni baino helduagoa dela nabari da. Begi urdin horiek eza-

gunak egin zaizkit, itsasoa gogorarazten didaten begi urdinok, une txarretan irribarre txiki bat eginarazi didaten begi urdinok. Urduri dagoela sumatu dut, baina neure eskua laztantzera ausartu da. «Kaixo, Nora». Zur eta lur geratu naiz hitz horiek entzunaz batera. Denbora gelditu egin da niretzat. «Nora, Nora!», errepikatu diot neure buruari. Ziztu bizian guregana datorren auto zaratatsu bat ikusi dut. Kontrako norabidean doa eta ez gaitu ikusi. «Nora». Aritzi ez dio denborarik eman hura saihesteko. Izugarrizko danbatekoa entzun dugu. Dena beltz egin zaigu. «Nora». Begiak ireki ditut. Haritzarra dut hanken gainean. Ezin ditut sentitu. Ingurura begiratu eta bihotza gelditu zait. «Nora». Lagunek ez didate erantzun. Lo daudela dirudi. Halako batean urruneko ambulanzia baten zarata entzun dut eta besoaz keinuak egiten ahalegindu naiz, ezin mugi bainaiteke. «Nora». Une hartatik aurrera, denak zion axola. Auto madarikatu horren erruz ez ditut berriz lagunak ikusi. Batzuetan ametsetan nabilela, topo egiten dugu, kale-ertzetan, bidezidorretan. Egun hartatik aurrera lehengoa ez naizela deritzote ingurukoek. Ene! Inuzentea ni! Lehen ezerk ere ez zidan axola, segundo soil batek dena hankaz gora jarri zuen arte, lagunekin batera, neure izana ere hil zen arte. «Nora?». Horixe da neure buruari galdetzen diodana.